

Irakurri eta Gozatu

ILUSTRAZIO TAILERRA: urrian egingo da, barikuetan, 7, 14, 21 eta 28an, arratsaldeko 6etatik 7:30etara. Ume eta gazteei zuzenduta dago, 7 urtetik 18ra bitartekoei, eta teknika ezberdinak landuko dira.

Dohain da eta irailean eman behar da izena Udaletxean. Animatu danok!
Informazioa: Udaletxean eta www.nabarniz.org web orrian.

IPUIN KONTALARIA: azaroan 4an eta 18an, eta abenduan 23an eta 30ean, arratsaldeko 6etan.
Ume eta gaztetxoentzat bereziki, eta ipuinez gozatu gura duen edonorentzat ere bai.

Dohain, Gizarte Etxean.

IPUINAREN ORDUA: azaroaren 11n eta 25ean, eta abenduaren 16an, arratsaldeko 6etan, Gizarte Etxean.

Atal ezberdinak izango ditu. Lehen zatian:

- ***Guraso eta aittitte-amumak ipuin kontalari:*** Guraso eta aittitte-amuma zarenoi dei egiten deutsuegu, ipuin kontaketa etor zaitezten. Ipuinak ez dira bakarrik umeen kontua. Lehenago ere zuek, gaur egun guraso eta aittitte-amuma zareenok, zeuen nagusiengandik jaso eta entzun izan dozuez ipuinak eta elezaharrak.

Zatozte, gogoan dituzuen ipuinak kontatzera, goian ageri diren egun horreetan, Nabarnizko ume eta neska-mutikoak adi-adi izango dozuez eta. Nahiago badozue, Liburutegian hartu ahal izango dozue beste ipuinen bat, etorri Udaletxera eta galdetu, eta lagunduko deutsuegu zeuen gustokoa aukeratzeko.

Zuen kontaketa errazteko, **irudiak prestatuko doguz, eta pantailan proiektatu** umeek ipuina entzuten daben bitartean.

Animatu, aukeratu aurretiaz ipuina eta prestatu egingo dogu, eta umeek gozatu!

Ipuinak kontatzen animatzen zareen guztiok, tarte polit horren oroitzapen gozoaz gain, **sari bat jasoko dozue.**

IPUINAREN ORDUA. Bigarren zatia:

- ***Haurrak ipuin kontalari (irakurriz).*** 7-8 urtetik aurrerakoak, edo irakurtzeko gaitasuna daukaten umeak ipuinak irakurtzen jarri gura doguz.

Irakurtzen badakizu? Zuk guztion aurrean irakurritako ipuin bat entzun nahi dogu, eta Nabarnizko ume txikiek be bai!

Bakarrik ez zarela ausartzen? Etorri laguntxo bategaz, eta bion artean irakurri ipuina! Aukeratu zeuen gustuko ipuin laburtxo bat, bestela Liburutegian hartu ahal izango dozue bat. Eroan etxera, irakurri eta prestatu, eta gero guztion aurrean irakurri.

Animatu, esan Udaletxean nortzuk nahi dozuen parte hartu, eta zein ipuin prestatuko dozuen, ahal izanez gero irudi batzuk prestatu eta proiektatzeko.

Parte hartzen dozuen guztiok sari bat izango dozue.

Azaroaren 11 eta 25ean eta abenduaren 16an ipuinak entzunez egingo diren arratsalde-pasa osatzeko, euskal mitologiari buruzko ipuinak ikusi eta entzungo doguz internetetik. Amaitzeko, ipuinetako irudiak marraztu edo koloreztatu.

Guzti hau biribiltzeko, bi lehiaketa antolatu dira.

I. IPUIN LEHIAKETA. Eskola sasoia etorri dan honetan, saiatu eta idatzi, eta zure ahaleginak saria eduki leike.

I. ILUSTRAZIO LEHIAKETA. Zatoz lehenengo urrian zehar egingo dan Ilustrazio Tailerrera, eta ikasi teknikak lantzen. Ondoren, animatu eta egin zeuk zeure gustuko irudia eta Lehiaketara aurkeztu.

Ikusi Lehiaketa bietarako erantsita doazen oinarri arauak. Udalaren web orrian be ikusi ahal dira: www.nabarniz.org

Erakusketa: Lehiaketara aurkeztutako lan guztien erakusketa egingo da, **abenduaren 5etik 31ra** bitartean.

Eta honekin lotuta, I. EUSKARAREN ASTEA. Abenduaren 3tik 10era.

EGITARAU zehatzagoa esku orrian.